

- **Zein da zure bezeroa?**

Gure bezeroa, bertako produktu garbi eta ekologiko bat kontsumitu nahi duen bezeroa da. Pertsonak nahiz saltokiak izan ahalko lirateke gure bezero, beraien kontsumo pribaturako edo bitarteko produktu bezala.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Bezero guztiek antzeko beharrak eta arazoak dituzte, hau da, merkatu masibo baten aurrean aurkituko ginateke.

Gure bezero guztiek antzeko ezaugarriak dituzte eta merkatu segmentazio barruan mota anitzeko bezeroak dira, familietatik hasita, saltokietaraino.

Laburtzen, gure bezeroak dibertsifikatuak badira ere, bezero guztien xedea berdina da.